

## ● HARREMANAK:

### **Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko.**

Aliantza mota honen bitartez, gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortuko dugu. Adibidez, aplikazio hau erabiliko dituzten tabernek haien lokaguneak eskeiniko dizkiete artistei.

Artistak eta bezeroak gure aplikazioaren bitartez jarriko dira harremanetan. Beraien artean hitz egin beharko dute non eta noiz izango den adosteko, beraz, chat pribatu bat izango dute Artifex aplikazioaren barruan. Artistak edo bezeroak gurekin komunikatu nahi izanez gero, whatsapp, gmail edota telefono bidez jarri beharko dira kontaktuan.

Horrez gain, gure bezeroiei konfiantza transmititzeko elkarrizketak egingo dizkiegu gure artistei aplikaziora sartzeko eskubidea emateko. Elkarrizketa horretan beraien profileko informazioa egiaztatuko dugu, horrela haiek profiletan informazio faltsua erakustea eragotziko dugu eta aldi berean haien aplikazioko profila sortzen lagunduko diegu, aholkuak emanez. Honi esker, gure aplikazioa konfiantzazko aplikazio bat izango da eta bezeroak aplikazioarekiko konfiantza izango dute. Era berean, bezeroek kexak eda erreklamazioak murriztuko dira, izan ere, ez ditugu profil faltsurik ezta profesional faltsurik izango.

